



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Basauriko Udala

**2025eko urtarrilaren 27ko 282/2025 Alkatetza Dekretuaren laburpena, «2025eko Udal Laguntza Ez Aldizkakoak (ANPM) Emateko Deialdia» onartzen duena. BDNS (Identif.): 811885.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/811885>)

#### Lehenengoa. — *Onuradunak*

Aldizkakoak ez diren udal laguntzak jaso ahalko dituzte honako baldintza orokor hauek betetzen dituztenak:

- Gizarte-langile arduradunarekin adostutako arreta pertsonalizatuko plan batean parte hartzea. Gizarte-langileak txostena egingo du, eta txosten horrek arduradun teknikoaren oniritzia jaso beharko du. Prestazio honen izapidetzea, berez, ezarritako gizarteratze prozesuaren barruko jardura bat izango da.
- Adin nagusikoa izatea (adin txikikoak beren kargura dituzten adin txikikoen kasuan izan ezik).
- Kontzeptu bakoitzerako zehaztutako diru-sarrerak eta ondarea ez edukitzea.
- Laguntzaren kontzeptu bakoitzerako eskatutako baldintza espezifikoak betetzea.

#### Bigarrena. — *Xedea*

Deialdi hauen helburua da arautzea zuzeneko eta ezohiko laguntzak ematea, eta, horren bidez, bazterkeria-egoerak prebenitu eta artatzea, eta pertsonen zein familien gizarteratzea sustatzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) eta 28.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

#### Hirugarrena. — *Oinarri arautzaileak*

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren babesean argitaratzen da deialdi hau. Basauriko Udala, 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran onartua eta Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2024ko abuztuaren 6koa. Hori da, hain zuzen ere, batzordearen oinarri arautzaileak.

#### Laugarrena. — *Zenbatekoa*

Deialdi honen zenbateko osoa 50.000,00 euro da.

#### Bosgarrena. — *Eskabideak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da deialdi hau argitaratzen denetik 2025eko abenduaren 1a arte. Salbuespenez, ostean aurkeztutako eskabideak ere izapidetuko dira, baldin eta gizartelangileak beharizan egoera abenduaren 1a eta gero detektatu badu, eta beharizan larria dagoela justifikatzen badu.

#### Seigarrena. — *Justifikazioak aurkezteko epea*

Justifikatzeko gehieneko epea 2026ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2025eko urtarrilaren 29an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren